

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**

*Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza*

*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**

*Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico*

*Gabinete de Prospección Sociológica*

**Turismoa Euskal Herrian: 2004**  
***El turismo en el País Vasco: 2004***

**(INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA /  
*DPTO. INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO*)**

**2004ko urria / *Octubre 2004***

*[http://www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos)*

## Aurkibidea / Índice

<b>SARRERA / INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>1</b>
<b>LABURPENA / SÍNTESIS</b> .....	<b>4</b>
<b>A – TURISMOAREN ERAGINA SOZIALA / INCIDENCIA SOCIAL DEL TURISMO</b> .....	<b>7</b>
• <b>Turismoaren hazkundera Euskal Herrian / Incremento del turismo en el País Vasco</b> .....	8
• <b>Turismoa garapenerako baliabide moduan / El turismo como elemento de desarrollo</b> .....	10
• <b>Turismoa eguneroko bizitzan / El turismo en nuestra vida cotidiana</b> .....	12
<b>B – TURISMOAREN ALDEAK EUSKAL HERRIAN / ASPECTOS DEL TURISMO EN EL PAÍS VASCO</b> .....	<b>14</b>
• <b>Erakartzen duten elementuak / Elementos de atracción</b> .....	15
• <b>Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar</b> .....	18
<b>ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA</b> .....	<b>21</b>

## **Sarrera / Introducción**

## Helburuak / Objetivos

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) **biztanleek Euskal Herrira datorren turismoari buruz dituzten iritziak** ezagutzea da txosten honen helburua. Horretarako 18 urte eta gehiagoko herritarrek gai honi buruzko galdera batzuei eman dizkieten erantzunak aztertuko ditugu.

Hau ez da gai hori aztertzen den lehenengo aldia, beraz badauzkagu alderaketa kronologikoa eta EAEko biztanleen iritzien bilakaera ikertzen lagunduko diguten datuak.

El objetivo del presente informe es **conocer las opiniones de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) en relación al turismo que acude al País Vasco**. Para ello analizaremos las respuestas dadas por los ciudadanos y ciudadanas de 18 y más años a preguntas realizadas sobre este tema.

Esta no es la primera ocasión en que se estudia esta cuestión, con lo cual disponemos de datos anteriores que nos permiten realizar una comparación cronológica y comprobar la evolución de las opiniones de la ciudadanía de la CAPV en relación a este tema.

## Informazio Iturria / Origen de la Información

Lan honetako emaitzak **2004ko iraila-urria**n Euskal Soziometro bildumaren 26. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

Galdera zehatzak **Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eskaera** baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 26 de la serie de Sociómetros Vascos, **realizado en septiembre-octubre de 2004**.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de **una petición del Departamento de Industria, Comercio y Turismo**, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco.

## Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik **segmentazio soziodemografikoen arabera** ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagai soziodemografikoak, hau da, inkestako gizarte taldeak desberdintzen dituzten galderak, taulen zutabeetan azaltzen dira, dagokion aldagai soziologikoen desberdintasun adierazgarriak sortzen dituztenean. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle: Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostia-San Sebastián).
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas**, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa*.
- Tamaño de municipio: *pequeño* (<10.000 habitantes), *mediano* (10.000-120.000 habitantes) y *capital* (>120.000 habitantes: Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián).
- Sexo: *varón y mujer*.
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65*.

- Adin taldeak: 18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.
  - Ikasketa maila: <lehen mailakoak, lehen mailakoak (lehen mailakoak, oinarrizko batxilergoa, OHO), bigarren mailakoak (lanbide heziketa, goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI), goi-mailakoak (diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, graduondokoak).
  - Lan egoera: lanean, langabezian, etxeko lanak, ikasten, jubilatua.
- Nivel de estudios: <primarios, primarios (primarios, bachiller elemental, EGB), secundarios (profesionales, secundarios, bachiller superior, REM, BUP, COU), superiores (diplomaturas, licenciaturas, doctorados, postgrados).
  - Ocupación principal: *trabajando, en paro, labores de casa, estudiando, jubilado/a.*

## Laburpena / *Síntesis*

## Puntuz puntu / Punto por punto

### ZER USTE DUGU EUSKAL HERRIRA DATORREN TURISMOARI BURUZ?

EAEko lau herritarretatik hiruk (%76k) uste dute turista gehiago datozela Euskal Herrira azken bolada honetan.

Uste hori zabalduago dago Bizkaian.

### ZELAKO ERAGINA USTE DUGU DUELA TURISMOAK?

Herritarren %69ren ustez turismoak garapen ekonomikorako eta enplegurako garrantzi handia du; beste %26ren iritziz zertxobait garrantzitsua da eta bakarrik %4k uste dute ez duela inolako garrantzirik.

Turismoak garapenerako duen garrantzia apur bat gehiago sentitzen da Gipuzkoan eta Bizkaian Araban baino, baita herri ertainetan eta hiriburuetan ere herri txikietan baino.

Gainera, EAEko herritarren %79k uste dute turismoa positiboa dela gure eguneroko bizitzarako, beste %17k ez dela positiboa ezta negatiboa ere, eta bakarrik %3k uste dute negatiboa dela.

Gure eguneroko bizitzarako turismoa positiboa delako ideia zertxobait hedatuago dago hiriburuetan eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean.

### ZEINTZUK DIRA TURISMOA GEHIEN ERAKARTZEN DUTEN ELEMENTUAK?

EAEko biztanleek Euskal Herrira datozen turistentzat erakargarrientzat jotzen dituzten hiru gauzak hauek dira: eskaintza gastronomikoa (%53k aipatuta), paisaia eta natura (%47k) eta eskaintza kulturala eta museoak (%44k). Beste gauzak nahikoa portzentaje txikiagotan aipatu dira: herriak eta hiriak (%12k), jendearen harrera ona eta atsegina izatea (%11k), ohitura eta tradizioak (%8k), zerbitzuen kalitatea (%4k) eta prezioak (%2k).

Bizkaian uste dute eskaintza kulturala eta museoak direla turismorako erakargarrienak, eskaintza gastronomikoa edo paisaia eta naturaren nabarmen gainetik. Elementu hori (eskaintza kulturala eta museoak) gehiago aipatu da ere hiriburuetan beste herrietan baino.

### ETA ZEINTZUK HOBETU BEHARKO LIRATEKE?

Jendearen ustez turismoa gutxien erakartzen duten elementuak dira euskal arlo turistikoa garatzeko gehien hobetu beharko liratekeenak: prezioak (%39k aipatuta) eta zerbitzuen kalitatea (%28k). Gainera %13k eskaintza kulturala eta museoak hobetu

### ¿QUÉ PERCEPCIÓN TENEMOS DEL TURISMO EN EL PAÍS VASCO?

Tres de cada cuatro ciudadanos y ciudadanas de la CAPV (76%) creen que últimamente se ha incrementado el número de turistas que vienen al País Vasco.

Esta percepción es más sentida en Bizkaia.

### ¿QUÉ INCIDENCIA CREEMOS QUE TIENE EL TURISMO?

El 69% de la ciudadanía opina que el turismo es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante; otro 26% cree que es algo importante, y tan sólo un 4% cree que no es nada importante.

La importancia del turismo como motor de desarrollo es algo más sentida en Gipuzkoa y en Bizkaia que en Araba, y también en los municipios de mediano tamaño y en las capitales más que en los pueblos pequeños.

Además, el 79% de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV opina que el turismo es un elemento positivo para nuestra vida cotidiana, otro 17% cree que no es ni positivo ni negativo y únicamente un 3% cree que es negativo.

La idea de que el turismo es positivo para nuestra vida cotidiana está algo más extendida en las capitales y entre quienes poseen estudios superiores.

### ¿QUÉ ELEMENTOS SON LOS QUE MÁS ATRAEN AL TURISMO?

Los tres elementos que la ciudadanía de la CAPV considera más atractivos para los y las turistas que visitan el País Vasco son la oferta gastronómica (mencionada por un 53%), el paisaje y la naturaleza (47%) y la oferta cultural y de museos (44%). Otros aspectos son mencionados en porcentajes bastante más inferiores: los pueblos y ciudades (12%), la hospitalidad y amabilidad de la gente (11%), las costumbres y tradiciones (8%), la calidad de los servicios (4%) y los precios (2%).

En Bizkaia la oferta cultural y de museos es considerada el principal atractivo para el turismo, bastante por encima de la oferta gastronómica o del paisaje y la naturaleza. Este elemento (la oferta cultural y de museos) también es más mencionado en las capitales que en el resto de municipios.

### ¿Y CUÁLES HABRÍA QUE MEJORAR?

Justamente los elementos considerados menos atractivos para el turismo son los que los ciudadanos y ciudadanas creen que más habría que mejorar para desarrollar el sector turístico vasco: los precios (señalado por un 39%) y la calidad de los servicios (por un

behar direla diote, %10ek herriak eta hiriak, %8k jendearen harrera ona eta atsegina izatea, %6k paisaia eta natura, %5ek ohitura eta tradizioak eta %2k eskaintza gastronomikoa (lehen komentatutako joerari jarraituz, erakargarriena den elementua hobetu behar diren gauzen zerrendaren azken tokian dago).

Prezioak hobetzea gehien eskatzen dutenak arabarrak dira eta zerbitzuen kalitatea bizkaitarrak eta arabarrak. Bestalde, eskaintza kulturala eta museoak hobetu behar direla gehien diotenak goi-mailako ikasketadunak dira.

28%). Además un 13% señala la oferta cultural y de museos, un 10% los pueblos y ciudades, un 8% la hospitalidad y la amabilidad de la gente, un 6% el paisaje y la naturaleza, un 5% las costumbres y tradiciones y un 2% la oferta gastronómica (siguiendo la tendencia mencionada, el elemento considerado más atractivo es el que ocupa el último puesto de cosas a mejorar).

Quienes más reclaman una mejora de los precios son los alaveses y alavesas y de la calidad de los servicios las y los vizcaínos y alaveses. Por su parte, la mejora en la oferta cultural y de museos es más solicitada por quienes cuentan con estudios superiores.

### Aurreko neurketekin alderatuz / Respecto a períodos anteriores

Euskal Herrira datozen turistak hazi direlako ideia 2001ean baino zabaldago dago baina ez da Bilbao Guggenheim Museoa ireki ondoren 1999an eta 2000n jasotako maila altuetara heltzen.

Gehiengoa dira berriro ere turismoak garapen ekonomikorako eta enplegurako garrantzi handia duela uste dutenak, baita gure eguneroko bizitzarako elementu positiboa dela diotenak ere. Kasu bietan 2004ko ehunekoak 2000n eta 2001ean izandakoak baino apurtxo bat baxuagoak dira.

Aurreko urteetan moduan turismorako erakargarrientzat jotzen diren hiru elementuak hauexek dira: eskaintza gastronomikoa, paisaia eta natura eta eskaintza kulturala eta museoak (nahiz eta azken horren aipamenak zertxobait gutxitu diren). Prezioak eta zerbitzuen kalitatea dira, berriro ere, turismoa gutxien erakartzen dutenak.

2000n eta 2001ean gertatzen zen moduan, jendearen ustez euskal arlo turistikoa garatzeko gehien hobetu beharko lirakeen bi elementuak prezioak eta zerbitzuen kalitatea dira. Dena dela, bien aipamenak nabarmen jaitsi dira 2000tik hona.

La idea del incremento de turistas que acuden al País Vasco está más extendida que en el año 2001, pero no alcanza los elevados niveles registrados en 1999 y 2000 tras la apertura del Museo Guggenheim Bilbao.

Siguen siendo mayoría quienes consideran que el turismo es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante, así como quienes creen que es un elemento positivo para nuestra vida cotidiana. En ambos casos los porcentajes de 2004 son ligeramente inferiores a los registrados en 2000 y 2001.

Al igual que en años anteriores los tres elementos considerados más atractivos para el turismo son la oferta gastronómica, el paisaje y la naturaleza y la oferta cultural y de museos (si bien las menciones de esta última han descendido ligeramente). Los menos atractivos son, nuevamente, los precios y la calidad de los servicios.

Tal y como ocurriera en 2000 y 2001 los dos aspectos que la ciudadanía considera que deben mejorar más para desarrollar el sector turístico vasco son los precios y la calidad de los servicios. En cualquier caso las menciones de ambos aspectos han descendido notablemente desde el año 2000.

### AZKEN BURUAN / EN DEFINITIVA

EAEko herritar gehienek uste dute azken bolada honetan turista gehiago datozela Euskal Herrira, turismoak garrantzi handia duela garapen ekonomikorako eta enplegurako eta positiboa dela eguneroko bizitzarako.

Herritarren ustez turismoa gehien erakartzen duten elementuak hauexek dira: eskaintza gastronomikoa, paisaia eta natura eta eskaintza kulturala eta museoak; turismoa gutxien erakartzen dutenak, berriz, prezioak eta zerbitzuen kalitatea. Azken bi elementu horiek dira, hain zuzen ere, jendearen iritziz euskal arlo turistikoa garatzeko gehien hobetu beharko lirakeenak.

La mayoría de la ciudadanía de la CAPV cree que últimamente vienen más turistas al País Vasco, que el turismo es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante y que resulta positivo para nuestra vida cotidiana.

Los elementos considerados más atractivos para el turismo son la oferta gastronómica, el paisaje y la naturaleza y la oferta cultural y de museos; los menos atractivos, en opinión de las y los ciudadanos, son los precios y la calidad de los servicios, y son estos dos aspectos, precisamente, los que más gente cree que habría que mejorar para desarrollar el sector turístico vasco.



## **A - Turismoaren eragina soziala / *Incidencia social del turismo***

- **Turismoaren hazkundera Euskal Herrian / *Incremento del turismo en el País Vasco***
- **Turismoa garapenerako baliabide moduan / *El turismo como elemento de desarrollo***
- **Turismoa eguneroko bizitzan / *El turismo en nuestra vida cotidiana***


## Turismoaren eragina soziala / *Incidencia social del turismo*

### Turismoaren hazkundera Euskal Herrian / *Incremento del turismo en el País Vasco*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

Zure ustez, azken bolada honetan turista gehiago etortzen dira Euskal Herrira? / ¿Cree Ud. que últimamente vienen más turistas al País Vasco?					
	1998KO MAIATZA <i>MAYO 1998</i>	1999KO URTARRILA <i>ENERO 1999</i>	2000KO EKAINA <i>JUNIO 2000</i>	2001EKO URRIA <i>OCTUBRE 2001</i>	2004KO IRAILA-URRIA <i>SEPT.-OCT. 2004</i>
Bai / <i>Si</i> .....	76	86	89	61	<b>76</b>
Ez / <i>No</i> .....	11	5	6	29	<b>11</b>
Ed-Ee / <i>Ns-Nc</i> .....	13	9	6	10	<b>13</b>
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100

Azken bolada honetan turista gehiago etortzen dira Euskal Herrira  
*Últimamente vienen más turistas al País Vasco*



- EAEko lau herritarretatik hiruk (%76k) azken bolada honetan turista gehiago datozela Euskal Herrira uste dute.
- Euskal Herrira turista gehiago datozelako ideia zabalduago zegoen 1999an eta 2000n (Bilbao Guggenheim Museoa ireki ondoren) eta zertxobait jaitsi zen 2001ean. 2004an berriro igo da baina ez da aipatutako 1999ko eta 2000ko mailetara iristen.

- Tres de cada cuatro ciudadanos y ciudadanas de la CAPV (76%) creen que últimamente vienen más turistas al País Vasco.
- La idea del incremento de turistas en el País Vasco estuvo más extendida en 1999 y 2000 (tras la apertura del Museo Guggenheim Bilbao) y cayó ligeramente en 2001. En 2004 vuelve a incrementarse aunque sin llegar a los mencionados niveles de 1999 y 2000.

## Turismoaren eragina soziala / Incidencia social del turismo

### Turismoaren hazkundera Euskal Herrian / Incremento del turismo en el País Vasco

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Zure ustez, azken bolada honetan turista gehiago etortzen dira Euskal Herrira? / ¿Cree Ud. que últimamente vienen más turistas al País Vasco?

	GUZTIRA TOTAL	LURRALDEA / TERRITORIO			UDALERRIAREN TAMAINA TAMAÑO DE MUNICIPIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA PEQUEÑO	ERTAINA MEDIANO	HIRIBURUA CAPITAL	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	>=65
Bai / Si.....	76	68	83	69	74	76	79	76	77	78	78	77	71
Ez / No.....	11	17	6	16	13	10	10	11	11	11	10	11	12
Ed-Ee / Ns-Nc.....	13	15	11	15	13	14	11	13	13	12	12	12	17
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				LAN EGOERA OCUPACIÓN PRINCIPAL				
	<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
Bai / Si.....	73	74	78	78	78	74	73	78	74
Ez / No.....	11	12	10	11	10	12	12	13	11
Ed-Ee / Ns-Nc.....	16	14	12	10	12	14	15	9	15
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Azken urte hauetan turismoa gehitu dela gehien nabaritu dutenak bizkaitarrak dira.
- Gehitze hori zertxobait gehiago aipatu dute ere hiriburuetan, bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenek eta lanean edo ikasten dabiltzanek.
- 64 urtetik gorakoak dira turismoaren gehitze hori gutxien hautematen dutenak (nahiz eta horien artean ere gehiengoa izan).


- Los vizcaínos y vizcaínas son quienes más perciben el incremento del turismo en los últimos años.
- Este incremento también es ligeramente más señalado en las capitales, por quienes cuentan con estudios secundarios o superiores y por quienes están trabajando o estudiando.
- Los y las mayores de 64 años son quienes (aún mayoritariamente) menos perciben este incremento del turismo.

## Turismoaren eragina soziala / *Incidencia social del turismo* Turismoa garapenerako baliabide moduan / *El turismo como elemento de desarrollo*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

Zure ustez, Euskal Herriko garapen ekonomiko eta enplegurako, zenbaterainoko garrantzia dauka turismoak: asko, zerbait edo batere ez? / ¿Cree que el turismo en el País Vasco es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante, algo importante o nada importante?			
	2000KO EKAINA <i>JUNIO 2000</i>	2001EKO URRIA <i>OCTUBRE 2001</i>	2004KO IRAILA-URRIA <i>SEPT.-OCT. 2004</i>
ASKO / MUY IMPORTANTE .....	74	72	69
ZERBAIT / ALGO IMPORTANTE.....	22	26	26
BAT ERE EZ / NADA IMPORTANTE .....	3	1	4
ED-EE / NS-NC.....	1	1	2
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100

### Zenbaterainoko garrantzia duen turismoak garapenerako / *Importancia del turismo como elemento de desarrollo* (2004)



EAEko herritarren %69k uste dute turismoak garrantzi handia duela garapen ekonomiko-rako eta enplegurako; %26k nolabaiteko garrantzia duela uste dute eta bakarrik %4k uste dute ez duela inolako garrantzirik.

Aurreko urteekin konparatuta, zertxobait jaitsi da turismoa garapenerako oso garrantzitsua dela uste dutenen kopurua. Dena dela, hori da gehienen ustea.

El 69% de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV cree que el turismo es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante; un 26% cree que es algo importante y tan sólo un 4% cree que no es nada importante.

Respecto a años anteriores ha descendido muy ligeramente el número de quienes creen el turismo es un elemento de desarrollo muy importante, opinión que, no obstante, sigue siendo mayoritaria.

## Turismoaren eragina soziala / Incidencia social del turismo

### Turismoa garapenerako baliabide moduan / El turismo como elemento de desarrollo

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Zure ustez, Euskal Herriko garapen ekonomiko eta enplegurako, zenbaterainoko garrantzia dauka turismoak: asko, zerbait edo batere ez? / ¿Cree que el turismo en el País Vasco es un elemento de desarrollo económico y de empleo muy importante, algo importante o nada importante?

	GUZTIRA TOTAL	LURRALDEA / TERRITORIO			UDALERRIAREN TAMAINA TAMAÑO DE MUNICIPIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA PEQUEÑO	ERTAINA MEDIANO	HIRIBURUA CAPITAL	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	>=65
ASKO / MUY IMPORTANTE .....	69	57	69	73	59	72	70	67	70	68	68	71	67
ZERBAIT / ALGO IMPORTANTE .....	26	36	26	20	34	21	26	27	25	28	27	23	25
BAT ERE EZ / NADA IMPORTANTE .....	4	5	3	4	5	4	2	5	3	2	4	5	4
ED-EE / Ns-Nc .....	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	1	2	4
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				LAN EGOERA OCUPACIÓN PRINCIPAL				
	<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
ASKO / MUY IMPORTANTE .....	71	67	67	71	68	68	72	71	67
ZERBAIT / ALGO IMPORTANTE .....	20	25	28	26	27	24	22	27	26
BAT ERE EZ / NADA IMPORTANTE .....	5	5	3	3	4	5	3	1	4
ED-EE / Ns-Nc .....	4	2	2	1	1	3	3	1	3
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Bizkaia eta batez ere Gipuzkoan Araban baino zabalduago dago turismoak garapen ekonomikorako eta enplegurako garrantzi handia daukalako ustea.

Herri ertainetan eta hiriburuetan ere herri txikietan baino hedatuago dago ideia hori.

En Bizkaia y sobre todo en Gipuzkoa es más compartida que en Araba la opinión de que el turismo es un elemento muy importante de desarrollo económico y de empleo.

Esta idea también está más extendida en los municipios medianos y en las capitales que en los pueblos pequeños.


## Turismoaren eragina soziala / Incidencia social del turismo

### Turismoa eguneroko bizitzan / El turismo en nuestra vida cotidiana

(GUZTIZKOAK / TOTALES)

Eta gure eguneroko bizitzarako, turismoa gauza positiboa, ez positibo ez negatiboa edo negatiboa da? / Y para nuestra vida cotidiana, ¿el turismo es un elemento positivo, ni positivo ni negativo o negativo?			
	2000KO EKAINA JUNIO 2000	2001EKO URRIA OCTUBRE 2001	2004KO IRAILA-URRIA SEPT.-OCT. 2004
POSITIBOA / POSITIVO .....	80	84	79
EZ POSITIBOA EZ NEGATIBOA / NI POSITIVO NI NEGATIVO .....	16	13	17
NEGATIBOA / NEGATIVO .....	2	1	3
Ed-Ee / Ns-Nc .....	2	2	2
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) .....	100	100	100

### Gure eguneroko bizitzan, gauza positiboa da turismoa? / En nuestra vida cotidiana, ¿es el turismo un elemento positivo? (2004)



EAEko herritarren %79k uste dute turismoa gauza positiboa dela gure eguneroko bizitzarako; %17ren ustez ez da ez positiboa ezta negatiboa ere, eta bakarrik %3k uste dute negatiboa dela.

Aurreko urteetan gertatzen zen moduan, herritarren gehiengo zabalak uste du turismoa positiboa dela eguneroko bizitzarako, nahiz eta 2001etik hona ehuneko hori zertxobait jaitsi den.

El 79% de la ciudadanía de la CAPV cree que el turismo es un elemento positivo para nuestra vida cotidiana; un 17% cree que no es ni positivo ni negativo y apenas un 3% cree que es negativo.

Al igual que en años anteriores la amplia mayoría de la ciudadanía cree que el turismo es positivo para nuestra vida cotidiana, si bien este porcentaje ha descendido levemente respecto a 2001.

## Turismoaren eragina soziala / Incidencia social del turismo

### Turismoa eguneroko bizitzan / El turismo en nuestra vida cotidiana

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Eta gure eguneroko bizitzarako, turismoa gauza positiboa, ez positibo ez negatiboa edo negatiboa da? /  
Y para nuestra vida cotidiana, ¿el turismo es un elemento positivo, ni positivo ni negativo o negativo?

	GUZTIRA TOTAL	LURRALDEA / TERRITORIO			UDALERRIAREN TAMAINA TAMAÑO DE MUNICIPIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA PEQUEÑO	ERTAINA MEDIANO	HIRIBURUA CAPITAL	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	>=65
POSITIBOA / POSITIVO.....	79	77	80	78	75	77	84	79	79	78	81	79	76
EZ POSITIBOA EZ NEGATIBOA / NI POSITIVO NI NEGATIVO.....	17	20	16	16	20	17	13	16	17	17	16	16	17
NEGATIBOA / NEGATIVO.....	3	1	2	4	3	3	1	3	2	3	1	3	4
Ed-Ee / Ns-Nc.....	2	2	2	3	2	2	2	2	2	1	2	2	3
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				LAN EGOERA OCUPACIÓN PRINCIPAL				
	<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
POSITIBOA / POSITIVO.....	74	76	81	83	80	79	79	78	77
EZ POSITIBOA EZ NEGATIBOA / NI POSITIVO NI NEGATIVO.....	17	19	15	14	16	13	18	18	15
NEGATIBOA / NEGATIVO.....	5	3	2	1	1	4	2	4	4
Ed-Ee / Ns-Nc.....	4	2	2	2	2	3	2	1	3
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Turismoa gauza positiboa dela gure eguneroko bizitzarako zabalduago dago hiriburuetan (zenbat eta udalerraren tamaina handiagoa izan orduan eta jende gehiagok dauka uste hori).

Ikasketa maila igo ahala horrela egiten du ere ondoko usteak: turismoak eragin positiboa duela gure eguneroko bizitzan.

En las capitales es donde más extendida está la idea de que el turismo es un elemento positivo para nuestra vida cotidiana (de hecho hay más gente que comparte esa idea a medida que se incrementa el tamaño de municipio).

A medida que se incrementa el nivel de estudios también lo hace la sensación de que el turismo nos afecta positivamente en nuestra vida cotidiana.

## **B - Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco**

- Erakartzen duten elementuak / Elementos de atracción
- Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar



## Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco


### Erakartzen duten elementuak / Elementos de atracción

(GUZTIZKOAK / TOTALES)

Zure ustez zeintzuk dira guregana datozen turistak gehien erakartzen dituzten bi gauzak? / ¿Cuáles cree que son las dos cosas que más atraen a los turistas que vienen a visitarnos? *			
	2000KO EKAINA JUNIO 2000	2001EKO URRIA OCTUBRE 2001	2004KO IRAILA-URRIA SEPT.-OCT. 2004
ESKAINNTZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA .....	49	50	53
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA .....	50	43	47
ESKAINNTZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS.....	51	48	44
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES .....	11	14	12
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD .....	15	15	11
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES.....	10	10	8
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS.....	5	5	4
PREZIOAK / LOS PRECIOS .....	2	3	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO / LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERIAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

### Zeintzuk dira datozen turistak gehien erakartzen dituzten gauzak? / ¿Cuáles son las cosas que más atraen a los turistas que vienen? (2004)



EAEko herritarren erdiak baino zertxobait gehiagok (%53k) uste dute eskaintza gastronomikoa dela Euskal Herria datozen turistak gehien erakartzen dituen. Horren atzetik datoz paisaia eta natura (%47k aipatuta) eta eskaintza kulturala eta museoak (%44k). Askoz atzetik daude beste erakarpenak: herriak eta hiriak (%12k), jendearen harrera ona eta atsegina izatea (%11k), ohiturak eta tradizioak (%8k), zerbitzuen kalitatea (%4k) eta prezioak (%2k).

Aurreko usteetan bezala, hauexek dira herritarren ustez turismoa erakartzen dituen hiru elementurik nagusienak: eskaintza gastronomikoa, paisaia eta natura eta eskaintza kulturala eta museoak (nahiz eta azken horren aipamenak apur bat jaitsi diren 2000 eta 2001 urteekin konparatzen baditugu).

Algo más de la mitad de la ciudadanía de la CAPV (53%) cree que la oferta gastronómica es el mayor atractivo para el turismo que viene al País Vasco, seguido del paisaje y la naturaleza (mencionado por un 47%) y la oferta cultural y de museos (44%). Muy por detrás quedan otros elementos de atracción como son los pueblos y ciudades (12%), la hospitalidad y amabilidad de la gente (11%), las costumbres y tradiciones (8%), la calidad de los servicios (4%) y los precios (2%).

Al igual que en años anteriores, los tres aspectos que la ciudadanía cree que son los que más atraen al turismo son la oferta gastronómica, los paisajes y la naturaleza y la oferta cultural y de museos (si bien las menciones de esta última han descendido levemente respecto a 2000 y 2001).

## Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco

### Erakartzen duten elementuak / Elementos de atracción

(KOLEKTIBOKA I / POR COLECTIVOS I)

Zure ustez zeintzuk dira guregana datozen turistak gehien erakartzen dituzten bi gauzak? \* / ¿Cuáles cree que son las dos cosas que más atraen a los turistas que vienen a visitarnos? \*

	GUZTIRA TOTAL	LURRALDEA / TERRITORIO			UDALERRIAREN TAMAINA TAMAÑO DE MUNICIPIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA PEQUEÑO	ERTAINA MEDIANO	HIRIBURUA CAPITAL	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	>=65
ESKAINNTZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA.....	53	55	48	60	48	56	52	54	52	50	54	54	54
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA.....	47	56	36	62	48	50	42	46	47	51	46	48	42
ESKAINNTZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS.....	44	42	61	15	40	41	49	43	44	42	47	44	40
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES.....	12	16	11	13	10	11	16	13	12	12	13	12	12
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD.....	11	7	12	12	14	12	9	11	12	10	10	14	12
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES.....	8	12	7	8	8	6	10	8	8	9	9	7	6
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS.....	4	3	4	4	4	4	5	4	4	5	4	3	4
PREZIOAK / LOS PRECIOS.....	2	2	2	3	2	2	3	2	2	3	2	2	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO /

LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERIAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

Bai Araban, bai (eta batez ere) Gipuzkoan Euskal Herrira datorren turismoa gehien erakartzen duten bi elementuak paisaia eta natura eta eskaintza gastronomikoa direla uste dute. Bizkaitarrek gutxiago aipatu dituzte esandako bi elementu horiek, haientzat erakarpenik garrantzitsuena eskaintza kulturala eta museoena delako. Bestalde, hemengo jendearen harrera ona eta atsegina izatea gehiago aipatu dute Bizkaian eta Gipuzkoan, eta ohiturak eta tradizioak, berriz, Araban.

Herri ertainetan besteetan baino ugariagoak dira eskaintza gastronomikoaren eta paisaia eta naturaren aipamenak; hiriburuetan, aldiz, eskaintza kulturala eta museoena, baita herriak eta hirienak ere.

Paisaia eta natura gehiago aipatu dute 18-29 urteko gazteek, eskaintza kulturala eta museoak, berriz, 30-45 urtekoek.

Tanto en Araba como sobre todo en Gipuzkoa los dos elementos considerados de mayor atracción para el turismo que viene al País Vasco son el paisaje y la naturaleza y la oferta gastronómica. Los vizcaínos y vizcaínas mencionan en menor medida estos dos aspectos dado que para ellos y ellas el principal atractivo lo constituye la oferta cultural y de museos. Por otro lado, la hospitalidad y amabilidad de la gente es algo más mencionada en Bizkaia y Gipuzkoa y las costumbres y tradiciones en Araba.

En los municipios medianos es donde más se mencionan la oferta gastronómica y el paisaje y la naturaleza; en las capitales, en cambio, es donde más señalan la oferta cultural y de museos y los pueblos y ciudades.

El paisaje y la naturaleza es algo más mencionada por las y los jóvenes de 18 a 29 años, mientras que la oferta cultural y de museos es algo más señalada por quienes cuentan entre 30 y 45 años.

## Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco

### Erakartzen duten elementuak / Elementos de atracción

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Zure ustez zeintzuk dira guregana datozen turistak gehien erakartzen dituzten bi gauzak? * / ¿Cuáles cree que son las dos cosas que más atraen a los turistas que vienen a visitarnos? *										
	GUZTIRA TOTAL	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				LAN EGOERA OCUPACIÓN PRINCIPAL				
		<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
ESKAINNTZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA .....	53	57	51	53	52	51	55	56	52	55
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA.....	47	46	46	47	50	49	41	44	50	44
ESKAINNTZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS ...	44	41	42	44	47	45	49	42	42	41
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES.....	12	11	13	12	12	13	10	13	12	11
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD .....	11	14	13	11	9	11	12	13	9	14
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES .....	8	5	8	9	9	9	8	6	8	7
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS .....	4	3	4	5	5	4	6	3	5	3
PREZIOAK / LOS PRECIOS.....	2	2	2	2	3	2	5	2	4	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO /

LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERÍAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

- Aztertutako talde guztietan eskaintza gastronomikoa da gehien aipatu den erakarpen-elementua.
- Eskaintza gastronomikoa gehien aipatu dutenak lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenak dira. Zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan orduan eta gehiago aipatzen dira paisaia eta natura eta eskaintza kulturala eta museoak.
- Paisaia eta natura gehien diotenak langileak eta ikasleak dira. Eskaintza kulturala eta museoak gehiago esan dituzte langabetuek.

- En todos los colectivos analizados la oferta gastronómica es el elemento de atracción más mencionado.
- Quienes más señalan la oferta gastronómica son quienes no alcanzan los estudios primarios. A medida que se incrementa el nivel de estudios aumentan las menciones del paisaje y la naturaleza y de la oferta cultural y de museos.
- El paisaje y la naturaleza es más mencionado por los y las trabajadoras y estudiantes. La oferta cultural y de museos es más señalada por quienes están en paro.

## Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco

### Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar

(GUZTIZKOAK / TOTALES)


Eta zeintzuk dira euskal arlo turistikoa garatzeko gehien hobetu behar diren bi gauzak? \* /

¿Y qué dos (elementos) cree que hay que mejorar más para desarrollar el sector turístico vasco? \*

	2000KO EKAINA JUNIO 2000	2001EKO URRIA OCTUBRE 2001	2004KO IRAILA-URRIA SEPT.-OCT. 2004
PREZIOAK / LOS PRECIOS .....	51	35	39
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS .....	42	34	28
ESKAINZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS .....	14	16	13
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES .....	16	14	10
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD .....	11	9	8
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA .....	10	10	6
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES .....	7	6	5
ESKAINZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA .....	2	2	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO / LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERIAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

### Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar (2004)



Euskal turismogintza garatzeko jendeak hobetu behar dela gehien dion aldea prezioena da (herritarren %39k aipatuta). %28k uste dute zerbitzuen kalitatea hobetu beharko litzatekela eta nahikoa gutxiago dira ondokoak hobetu behar direla uste dutenak: eskaintza kulturala eta museoak (%13k), herriak eta hiriak (%10ek), jendearen harrera ona eta atsegina izatea (%8k), paisaia eta natura (%6k), ohitura eta tradizioak (%5ek) eta eskaintza gastronomikoa (%2k).

Aurreko urteetan gertatu zen moduan, herritarrek hobetzeko gehien esan dituzten bi gauzak prezioak eta zerbitzuen kalitatea dira. Berriro ere, esku-hartzerik txikiena behar duena eskaintza gastronomikoa da.

Zehatzago eta 2000 ea 2001 urteekin alderatuta, orain gutxiago dira ondoko gauzak hobetu behar direla uste dutenak: zerbitzuen kalitatea, eskaintza kulturala eta museoak, herriak eta hiriak, jendearen harrera ona eta atsegina izatea, paisaia eta natura, eta ohiturak eta tradizioak. Bestalde, prezioak 2000 urtean baino gutxiago aipatu dira baina 2001ean egin ziren beste edo gehiago.

El aspecto que más gente cree que hay que mejorar para desarrollar el sector turístico vasco es el de los precios (mencionado por un 39% de la ciudadanía). Un 28% cree que hay que mejorar la calidad de los servicios, y son bastantes menos quienes creen que hay que mejorar la oferta cultural y de museos (13%), los pueblos y ciudades (10%), la hospitalidad y amabilidad de la gente (8%), el paisaje y la naturaleza (6%), las costumbres y tradiciones (5%) y la oferta gastronómica (2%).

Tal y como ocurriera en años anteriores, los dos aspectos que la ciudadanía más cree que deben mejorar son los precios y la calidad de los servicios. Nuevamente el que requiere menor intervención es la oferta gastronómica.

Más concretamente y respecto a los años 2000 y 2001, son menos los y las que ahora señalan la necesidad de mejorar la calidad de los servicios, la oferta cultural y de museos, los pueblos y ciudades, la hospitalidad y amabilidad de la gente, el paisaje y la naturaleza y las costumbres y tradiciones. Los precios, por su parte, son menos señalados que en el año 2000 pero tanto o más que en 2001.

**Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco****Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar**

(KOLEKTIBOKA I / POR COLECTIVOS I)

Eta zeintzuk dira euskal arlo turistikoak garatzeko gehien hobetu behar diren bi gauzak? * / ¿Y qué dos (elementos) cree que hay que mejorar más para desarrollar el sector turístico vasco? *													
	GUZTIRA TOTAL	LURRALDEA / TERRITORIO			UDALERRIAREN TAMAINA TAMAÑO DE MUNICIPIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA PEQUEÑO	ERTAINA MEDIANO	HIRIBURUA CAPITAL	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	>=65
PREZIOAK / LOS PRECIOS.....	39	52	34	43	31	40	44	39	39	42	43	35	37
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS.....	28	29	33	19	25	28	30	27	29	29	32	27	24
ESKAINNTZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS.....	13	15	12	13	12	11	16	12	13	14	11	14	13
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES.....	10	7	13	5	7	13	8	11	9	11	11	10	8
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD.....	8	12	6	10	7	9	8	7	9	9	8	8	7
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA.....	6	3	8	5	6	7	6	7	6	7	6	6	6
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES.....	5	5	5	4	5	5	3	5	4	5	4	5	4
ESKAINNTZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA.....	2	2	2	3	2	4	1	2	2	3	2	2	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO /

LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERIAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

Aztertutako talde guztietan prezioak dira hobetzeko gehien esan den gauza, nahiz eta aipamenak kopuru ezberdinekoak izan talde batzuetan edo besteetan: Araban gehiago aipatu dira (%52) eta Bizkaian gutxiago (%34), zenbat eta udalerraren tamaina handiagoa izan orduan eta gehiago aipatzen dira prezioak, eta horien aipamenak batez bestekoa baino zertxobait altuagoak dira ere 46 urtetik beherakoan artean.

Zerbitzuen kalitatea hobetzeko premia apur bat gehiago adierazi da Bizkaian eta Araban, udalerraren tamaina handitu ahala eta 46 urtetik beherakoan artean.

Eskaintza kulturala eta museoak hiriburuetan zertxobait gehiago aipatu da.

Bizkaian eta herri ertainetan beste lekuetan baino gehiago esan da herriak eta hiriak hobetu behar direla. Bizkaian paisaia eta naturaren hobetzea ere besteetan baino neurri handiagoan eskatu da.

Azkenik, jendearren harrera ona eta atsegina izatea hobetu behar dela gehiago diote Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian baino.

En todos los colectivos analizados los precios son el aspecto a mejorar más señalado por los ciudadanos y ciudadanas, si bien las diferencias de mención entre unos y otros grupos son considerables: en Araba es donde más se mencionan (52%) y en Bizkaia donde menos (34%); a medida que se incrementa el tamaño de municipio también aumentan las menciones de los precios, y éstas también son algo más elevadas que la media entre los y las menores de 46 años.

La necesidad de mejorar la calidad de los servicios es algo más señalada en Bizkaia y Araba, a medida que aumenta el tamaño del municipio y entre los y las menores de 46 años.

La oferta cultural y de museos es algo más citada en las capitales.

La mejora de pueblos y ciudades es algo más señalada en Bizkaia (donde también se menciona más que en el resto de territorios la mejora del paisaje y la naturaleza) y en los municipios de mediano tamaño.

Finalmente la mejora de la hospitalidad y amabilidad de la gente es algo más solicitada en Araba y en Gipuzkoa que en Bizkaia.

## Turismoaren aldeak Euskal Herrian / Aspectos del turismo en el País Vasco

### Hobetzeko aldeak / Elementos a mejorar

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Eta zeintzuk dira euskal arlo turistikoa garatzeko gehien hobetu behar diren bi gauzak? * / ¿Y qué dos (elementos) cree que hay que mejorar más para desarrollar el sector turístico vasco? *										
	GUZTIRA TOTAL	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				LAN EGOERA OCUPACIÓN PRINCIPAL				
		<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
PREZIOAK / LOS PRECIOS.....	39	41	39	41	36	40	37	40	42	38
ZERBITZUEN KALITATEA / LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS .....	28	28	25	28	33	29	34	28	31	23
ESKAINNTZA KULTURALA ETA MUSEOAK / LA OFERTA CULTURAL Y DE MUSEOS ...	13	8	13	11	19	13	14	13	12	12
HERRIAK ETA HIRIAK / LOS PUEBLOS Y CIUDADES.....	10	12	7	12	10	10	11	10	12	10
JENDEAREN HARRERA ONA ETA ATSEGINA IZATEA / LA HOSPITALIDAD Y LA AMABILIDAD .....	8	10	8	7	10	9	10	8	8	6
PAISAIA ETA NATURA / EL PAISAJE Y LA NATURALEZA.....	6	5	7	6	6	5	10	9	8	5
OHITURAK ETA TRADIZIOAK / LAS COSTUMBRES Y TRADICIONES .....	5	8	5	4	3	4	6	3	5	6
ESKAINNTZA GASTRONOMIKOA / LA OFERTA GASTRONÓMICA .....	2	2	3	2	2	2	4	2	4	2

\* ERANTZUN AUKERAK IRADOKITZEN ZIREN GALDESORTAN BERTAN. GUZTIRA 100 BAINO HANDIAGO DA BI GAUZA AIPATU AHAL ZIRELAKO /

LAS OPCIONES DE RESPUESTA SE SUGERÍAN EN LA PROPIA ENCUESTA. LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100 YA QUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA DOS COSAS.

- Kolektibo guztietan gehien aipatu den hobetzeko gauza prezioak dira.
- Goi-mailako ikasketak dituztenek besteek baino zertxobait gutxiago aipatu dituzte prezioak eta gehiago zerbitzuen kalitatea eta eskaintza kulturala eta museoak.
- Lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenak dira ohitura eta tradizioak hobetu behar direla gehien diotenak.
- Bestalde, zerbitzuen kalitatea hobetzea zertxobait gehiago eskatzen dute langabetuek.

- Los precios son el aspecto a mejorar más citado en todos los colectivos.
- Quienes poseen estudios superiores señalan algo menos que el resto los precios y más la calidad de los servicios y la oferta cultural y de museos.
- Quienes no alcanzan los estudios primarios son quienes más mencionan la necesidad de mejorar las costumbres y tradiciones.
- Por otro lado, la mejora de los servicios es algo más reclamada por el colectivo de parados y paradas.

## Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Informazio bilketa **2004ko irailaren 21a eta urriaren 4a bitartean** egin zen –bik barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

**Lagina**, 18 urte edo gehiagoko biztanleria zuzendua, honela banatu zen: 609 pertsona Araban, 1266 Bizkaian eta 973 Gipuzkoan, beraz, 2848 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin (\*)-, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratu. Emaitzak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2004ko Hauteskunde Orokorretako boto oroimenaren arabera haztatu dira.

Ikerkertaren **diseinua** Industria, Merkataritza eta Turismo Saila eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen arteko elkarlanean oinarritzen da, baina emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Bestaldekik, informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

2848 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen** estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria,  $\pm 1,87\%$ koa da EAE osorako,  $95,5\%$ eko konfiantza mailarako,  $p=0,5$  izanik.

Inkosten  $51,2\%$  telefono bidez **kontrolatu** egin dira eta  $14,5\%$  berriz, etxean bertan. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak-.

Datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai EAerako baita lurralde bakoitzarentzat ere, lagin adierazgarri egokia erabiliz eta inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia objektibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: batetik 2004ko Hauteskunde Orokorretako botoaren banaketa erreala eta, bestetik, adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko estatistika ofizialak.

La recogida de información se realizó entre **el 21 de septiembre y el 4 de octubre de 2004** -ambos inclusive- a través de entrevista individual mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada a domicilio a una muestra representativa de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

La **muestra**, dirigida a una población de 18 y más años, se distribuyó del siguiente modo: 609 personas en Araba, 1266 en Bizkaia y 973 en Gipuzkoa, lo que supone un total de 2848 personas entrevistadas. La selección se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias -a partir de un total de 214 puntos de muestreo (\*)- y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las Elecciones Generales de marzo de 2004, en cada uno de los tres Territorios.

El **diseño** de la investigación es compartido entre el Departamento de Industria, Comercio y Turismo y el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco, mientras que el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica. La recogida de información fue realizada por la empresa *Ikertalde*, sita en la calle Avenida de la Libertad, 17-19, 20004, Donostia-San Sebastián.

El **error muestral** correspondiente a esta muestra de 2848 individuos, y atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se cifra en un  $\pm 1,87\%$  para el conjunto de la CAPV, con un nivel de confianza de  $95,5\%$  y  $p=q=0,5$ .

Se ha llevado a cabo un **control** telefónico del  $51,2\%$  de las encuestas y un control domiciliario del  $14,5\%$  de las mismas. Asimismo, se han realizado todos los controles informáticos pertinentes -lógicos, de coherencia y de rango- en cada uno de los cuestionarios recogidos.

La **fiabilidad y validez** de los datos queda garantizada en base al empleo de una muestra adecuadamente representativa, tanto para el conjunto de la CAPV como para cada uno de los tres Territorios Históricos, así como mediante la evaluación de las diferencias entre los resultados finales de la encuesta con otras referencias externas objetivas publicadas, siempre que existen datos contrastables. Nos referimos, concretamente, a la distribución oficial real de voto en las Elecciones Generales de 2004 y a las estadísticas oficiales de edad, sexo, nivel de estudios, situación laboral y nivel de conocimiento de euskera.

(\*) Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zatiak" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiak), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

(\*) El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por el Eustat.